

# 5/23

## *irizpena*

Laneratzeo enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen

**Dekretu-proiektuari buruzkoa**

**Bilbon, 2023eko apirilaren 26a**



**CES**  
**EGAB**

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 5/23

---

## I.- AURREKARIAK

---

2023ko martxoaren 29an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Enplegu Sailaren idazkia sartu zen, eta txostena eskatu zuen *Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen Dekretu-proiektuari* buruz, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak, 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*Arauaren xedea da, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta laneratu eta gizarteratzearen aldeko politika publikoen esparruan, laneratzeko enpresen araubide juridikoa arautzea, lan-merkatura iristeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratu eta gizarteratzeko eragile aktiboak diren neurrian.*

*Helburu horiek betetzeko, dekretuaren edukia honako hauetara zabaltzen da:*

- a) Laneratzeko enpresek izan behar dituzten eskakizunak, halakotzat kalifikatzeko prozedura eta kalifikazioaren ondoriozko betekizunak arautzera.*
- b) Laneratzeko enpresen erregistroaren funtzionamendu-arauak zehaztera.*
- c) Ohiko lan-merkatura iristeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzeko enpresetan sar daitezen prozedura arautzera, bai eta enpresa horietan egoteko araubidea ere.*

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraikiz. Gizarte Garapenerako Batzordea 2023ko apirilaren 23an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen Osoko Bilkurak landu dezan. Bertan apirilaren 26an aho batez onartu da.

## II.- EDUKIA

---

Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen dekretu-proiektuak honako hauek ditu: zioen azalpena, 4 kapitulutan banatutako 23 artikulua, xedapen gehigarri bakarra, xedapen iragankor bakarra eta lau azken xedapen ditu.

Zioen azalpenean jasotzen da gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan politika publikoen erronka bat dela talde zaurgarrienak ohiko merkaturan sartzeko erraztasunak ematea. Ildo horretatik, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzen laguntzea funtsezko mekanismo bat da bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen, gizarteratu eta laneratzeko ibilbidearen esparruan definitzen diren neurrien bidez, gaitasunak eta abileziak eskura ditzaten. Modu horretan, ohiko enpleguan sartu eta bizi independentea garatzeko aukera izango dute.

Halaber, aipatzen da Euskadin, dagoeneko 2000. urtean, abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuaren bitartez laneratzeko enpresak arautu nahi izan zirela, eta, gerora, Laneratzeko Enpresen Araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legea indarrean sartu zenean eta esperientziak bultzatuta 305/2000 Dekretuaren ordezkariaren 11ko 182/2008 Dekretua onetsi zela.

Ondoren, adierazten da 182/2008 Dekretua onetsi zenetik igaro den denboran zenbait gertakari izan direla eta, ondorioz, ezinbestekoa dela arauketa egokitzea eta testuinguru sozioekonomiko berrira egokitzea. Hona hemen gertakari horiek:

- Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea onestea, eta

azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatzea.

- EAEk enpleguaren politika aktiboen kudeaketa bere gain hartzea eta Lanbide martxan jartzea, bai eta 2021ean Lanbideren eraldaketa- eta hobekuntza-eredua onartzea ere.
- Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ezartzen duten maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretua eta gutxieneko bizi-sarrera ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legea aldarrikatzea; eta EAEk bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren laguntzako prestazioaren kudeaketa onartzeko hitzarmena definitzen duen akordioa ezartzea (2022ko martxoaren 31ko EHAA eta BOE).

Aurrekoaz gain, azaltzen da Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legeak 5. artikuluan laneratzeko enpresak gizarte-ekonomiako erakundeen eta interes ekonomiko orokorren zerbitzuak ematen dituzten erakundeen definizioaren barruan sartzen dituela, Europako araudiak halako enpresa-moten idiosinkrazia bereziari aurre egiten diola eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen laugarren xedapen gehigarriak, kontratu erreserbatuei buruzkoak, betebeharrak ezartzen diela organo eskudunei, kontratu zehatzen edo lote jakinen adjudikazio-prozeduretan laneratzeko enpresa arautuek parte hartzeko eskubidearen gutxieneko erreserba-ehunekoa finkatze aldera.

Beste arau batzuk ere garatu dira urteetan zehar gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko esparruan, hala nola Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen urriaren 9ko 43/2015 Legea edo Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretua.

Horiek guztiak aintzat hartuta, nahitaezkoa da laneratzeko enpresen kalifikazioa, sartzeko prozedura eta erregistroa arautzen dituzten neurriak ikuskatu eta egokitzea.

## Arauk

**I. kapitulua. Xedapen Orokorrak (1-7 art.)** atalean, xedea, helburua, aplikazio-eremua eta laneratzeko enpresen kontzeptua nahiz kalifikatzeko eskakizunak zehazteaz gain, arautzen dira enpresa bat enpresa ekintzailatzat jotzea, laneratzeko enpresak kontratatu ahal izango dituen pertsonak eta egoera ziurtatzeko modua.

**II. kapitulua. Laneratzeko enpresen kalifikazioa (8-13 art.)** atalak kalifikazioaren egintza eta prozedura, kalifikazioaren ondorioak eta betekizunak eta kalifikazioaren galera nahiz horretarako prozedura ditu.

**III. kapitulua laneratzeko enpresen erregistroaren (14-18 art.)** gainekoa da. Hala, egitura, erregistroan inskribatzearen ondorioak eta inskripzioen deuseztapena ageri dira bertan.

**IV. kapituluan (19-23 art.) laneratzeko enpresetan sartzeko prozedura eta kide izatearen araubidea** arautzen dira. Kapitulu horretan alderdi hauek arautzen dira: laneratzeko eta gizarteratzeko ibilbidea, esku hartu eta laguntzeko zerbitzuak, lan-kontratua azkentzea edo sozietate-lotura, ibilbidearen esparruan eskuratu den prestakuntzaren ziurtagiria eta laneratze-prozesuekin lotutako lan-harremanen araubide juridikoa.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARREAN** xedatzen da Lanbidek beste administrazio publiko batzuei bidali ahal izango dizkiela bere erregistroetan dituen laneratzeko enpresen datuak eta estatistikak eta haiei laneratzeko prozesuen informazioa eskatzeko aukera izango duela.

**XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRAK** 182/2008 Dekretua eta Dekretu honen aurka doazen maila bereko edo azpiko legezko xedapen guztiak indargabetzen ditu.

**XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRAK** zehazten du, xedapen indargabetzaile bakarrean xedatutakoaren kalterik gabe, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan xedatutakoa aplikatuko dela. Agindu horren bidez laneratzeko enpresak sortu eta horiei eusteko laguntzak arautzen dira ordeztuko duena indarrean sartu arte.

**Azken xedapenetatik lehenak** araubide osagarria definitzen du, **bigarrena** arauzko garapenari buruzkoa da, **hirugarrena** laneratzeko enpresak sustatzeko neurrien gainekoa eta **laugarrena** indarrean sartzeari buruzkoa.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

---

*Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen Dekretu-proiektua* aurkeztu da Batzordeak aztertzeko. Euskal gizarteak aldaketa sakonei aurre egin behar die, eta dekretu honen helburua da araudia aldaketa horiekin lerrotzea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Sistemaren eredu berria eta Lanbideren eraldaketa inolaz ere baztertu gabe. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen laneratzeko eta gizarteratzeko sustatu nahi dira, ohiko lan-merkatuan sartzeko zailtasunak badituzte.

182/2008 Dekretua onetsi zenetik izan diren gertakariak eta igarotako denborak ezinbestez arauketa egokitzera eta testuinguru sozioekonomiko berrira moldatzera daramate eta, horregatik, gure iritziz, arauketa-ekimena egokia eta bidezkoa da.

Zioen azalpenean adierazitakoaren ildotik, enplegua gizarteratzeko eta giza garapenerako oinarrizko tresna da, eta funtsezkoa da gizakiaren bizitza produktiboa, erabilgarria eta adierazgarria izan dadin; pertsonen bizimodua ateratzeko aukera ematen die, gizartean parte hartzeko bide bat da, segurtasuna ematen du eta duintasun-zentzua ematen du.

Horregatik, hain zuzen ere, ados gaude politika publikoek talde zaurgarrienak ohiko lan-merkatu iristeko erraztasunak ematearekin. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak behar dituzte, ohiko enplegua eskuratu ahal izateko ezinbestekoa baita gaitasunak eta abileziak bereganatzea. Testuinguru honetan, laneratzeko enpresak tresna egokiak dira.

Positibotzat jotzen dugu laneratzeko enpresak kontratatu ditzakeen pertsonen bazterkeria-egoerak zabaltzea (6. artikulua) eta, bereziki, enplegu-eskerik egiten ez duten atzerritarrak kontuan hartzea, baldin eta “gizarte-errotzearen” eta “prestatzeko errotzearen” arrazoiak direla bide, aldi baterako egoitza-baimenari buruzko ebazpena badute. Modu horretan, gizarteratze- eta laneratzeko-prozesuan dauden pertsona migratuen egoerari erantzuten zaio. Dekretu-proiektuaren aurrerapausoa iruditzen zaigu bazterkeria-egoerak egiaztatzeko prozedura argitzea eta definitzea (7. artikulua), laneratzeko enpresan sartzeko arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Dena den, gogoratu behar dugu laneratzeko enpresen helburua dela gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden pertsonak ohiko lan-merkatuan sartzeko, 2. artikulua xedatutakoaren arabera. Horregatik, gure ustez:

- Laneratzeko enpresaren kalifikazioa eskuratzeko eskakizunak helburuak betetzearekin lotuko dira eta helburu horien artean (9. artikulua), itxuraz, eskagarria da bideragarritasun-plana. Eskakizun

hori dekretu-proiektuak ez du aurrez ikusten.

- Prozesuan zehar baliabideak ebaluatzeaz gain, xedea bete ote den ebaluatu behar da, beraz, kalifikazioaren ondoriozko eskakizunetan (11. artikulua) sartu beharko litzateke, besteak beste, 6 hilabete igaro ondoren (helburua ex post ebaluatzea) pertsona horiek jarraitzea eta ebaluatzea. Gure iritziz, ebaluazio hori beharrezkoa da, batetik, eraginkortasunari begira eta, bestetik, Lanbiderekin ezinbestez lankidetzan aritu behar baita.
- Laneratzeko enpresaren kalifikazioa iraungitzeko arautzen diren arrazoiek (12. art.) sozietate- eta prozedura-alderdi instrumentalez gain, alderdi sakon bat izan behar dute, xedea ez betetzea alegia.

## IV.- GOGOETA BEREZIAK

---

### Zioen azalpena

Batetik, faltan botatzen dugu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea berariaz aipatzea eta, bestetik, beharrezkotzat jotzen dugu Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeari (2. artikulua) egokitzea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari buruzko abenduaren 22ko 14/2022 Lege berria joan den martxoaren 29an indarrean sartu baitzen.

### 6. artikulua. Laneratzeko enpresak kontratatu ditzakeen pertsonak

- 2. apartatuan Atzeritartasunari buruzko Araudiaren 2 artikulua aipatzen dira, baina araudi berriari egokitu behar zaizkio, Espainian atzeritarren eskubideei eta askatasunei eta gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Araudia aldatzen duen uztailaren 26ko 629/2022 Errege Dekretuak aldatu baititu, 2/2009 Lege Organikoak berritu ondoren (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).
- 3. apartatuak muga bat jartzen du, hain zuzen ere, kontratatu aurreko bi urteetan laneratzeko enpresa berean edo beste batean zerbitzuak ez eman izatea, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Baieztapen horren harira, honako hau gehitzea proposatzen dugu:

Hala eta guztiz ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak muga hori ez aplikagarritzat jo ahal izango du aurretiazko laneratze-prozesu batean porrot egin denean, bazterkeria-egoera edo -arriskua mantendu ala horretan berrerori denean edo laneratzeko enpresaren jarduera gutxitzeagatik edo lagatzeagatik laneratze-prozesuan jarraitzea ezinezkoa denean. Gainera, salbuespenez, pertsonen muga horretaz salbuetsiko zaie, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea nahiz enplegarritasuna errazte aldera Lanbidek sustatutako programa espezifikoen bidez kontratatuta egon badira. **Modu berean, salbuespenez, pertsonen muga horretaz salbuetsiko zaie, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbide osoaren edo laneratzea eta gizarteratzea nahiz enplegarritasuna errazteko prestakuntza-programaren esparruan, kontratazioa egin aurreko bi urteetan, guztiz batuta, hilabetetik gora kontratatuta egon ez badira.** Kasu horiek betetzen direla Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako txostenaren bidez egiaztatuko da.

## 7. artikulua. Laneratzeko enpresak kontratatu ditzakeen pertsonen egoera egiaztatzea

e) letran honako hau gehitzea proposatzen dugu:

e) h), i) eta j) letretan aipatzen diren pertsoneri dagokienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatu ostean egiaztatuko da, lehen eta bigarren arretako gizarte-zerbitzuetako gizarte-zerbitzu eskudunek **eta pertsonen zaurgarritasun-faktoreak eta bazterkeria-arriskua murrizteko programak kudeatzen dituzten erakunde publikoek** emandako txostenaren bitartez. Xede horrez, eredu bat zehaztuko da.

## 9. artikulua. Kalifikazio-prozedura

Gogoeta orokorretan azaldutakoari eutsiz, laneratzeko enpresaren kalifikazioa eskuratzeko eskakizunen artean bideragarritasun-plana sartu behar delakoan gaude.

## 11. artikulua. Kalifikazioaren ondoriozko betebeharrak

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, baliabideak ebaluatzeaz gain, ezinbestekoa da xedea bete dela ebaluatzea. Horregatik, 6 hilabete igaro ostean pertsonen egoera jarraitu eta ebaluatzea proposatzen dugu (helburua ex post ebaluatzea).

## 12. artikulua. Kalifikazioa galtzea

Gogoeta orokorretan adierazitakoaren ildotik, kalifikazioa iraungitzeko arrazoien artean sartu behar da funtsezko gai sakona, hain zuzen ere, helburua ez betetzeari dagokiona. Hala, 4. artikuluan definitzen den helburura iristen ez bada, enpresa horrek ez luke laneratzeko enpresaren kalifikazioa izaten jarraitu behar.

## 15. artikulua. Erregistroaren egitura

Egokitzat jotzen dugu informazio egokiarekin eguneratua mantentzea. Horregatik, proposatzen dugu dekretuak erregistroaren informazioa eguneratzeko aldizkakotasuna ezartzea.

## V.- ONDORIOA

---

Euskadiko EGABren iritziz egokia da *Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen Dekretu-proiektua* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetak aintzat hartuta.

Bilbon, 2023ko apirilaren 26a

O.E. Presidentea

Idazkari nagusia

Emilia M. Málaga Pérez

Olatz Jaureguizar Ugarte